

## Ongiaz, gaizkiaz

**A**dos Juanjo. Ez jakiteak, narrazio handien desagertzeak, egoera interesgarria sortu du. Norbera bere kabuz gauzak epaitzeko beharrean aurkitzen da aurrerantzean. Indibidualista izan naiz beti eta ez nuke halakorik deitoratu behar. Oharkabean labe bihurtuz doan gure planetaren azaletik gizateria osoa lurrunduko balitz ez nuke, gainera, negarrik egingo, ez baitiot-eta sinpatia gehiegirik, *in abstracto* behinik behin, gure generoari. Nire familia, lagunak eta etxeak katua, aldiz, maite ditut, zuk bezala. Tau Baskonia ere, biziki.

Ongia eta gaizkia aipatzen zenituen. Filosofo dezagun apur bat, beraz.

Gizakiarengan miresgarria iruditzen zaidana ez da preseski ongia egiteko duen gaitasuna –ez baitut hori posible denik sinesten, beti baitira perbertsoak ekintza “onak”, beti baitute, inkontzientearen suilardean ondo gordeta bada ere, interesaren atze-zaporea–. Horregatik, eta barka bezait halako gordinkeria –oraingoz gutxi gorabehera inkisizio girotik libratzen den Frantziako Estatutik idazten dut–, ez dut uste gatazka politikoetan ongiak ala gaizkiak mintzo daitekeenik. Interesen konfliktoaz mintzatzea zuzenagoa litzateke, apika. Kontua da nola mozorrotzen duen parte bakoitzak ongien bere interesa, momentu historikoko moda kontzeptualaren nahiz indarren orekaren arabera. Orain dela 30 urte dialektikaz hitz egitea zilegi zen. Gaur ez. Gaur demokrazia eta moralak daude modan. Ados. Baina, halere, norbaitek esaten duen bakoitzean azkenean ulertu duela bizitzaren gaitetik ez dagoela ezertxo ere, eta ordurarte diskurtso ideologikoen itsuturik bizi izan dela, eta abar, barkatu baina barregura sortzen zait. Kurioso da ikustea eskuarki pertsona horrek sistema sozialean bere tokitxoak egitea lortu duen une biografikoan kokatu ohi dela epifania demokratiko-moralak. Baina zer uste duzue, bada, palestinar kamikaze batek bere burua zartarazten badu oraindik zorioneko epifania demokratiko-moral



DANI BLANCO

Mr Apalategi

Basterretxea

Olasagerrre

hori izan ez duelako dela ala? Mesedez. Izan gaitzen serioak. Ideologia batek bestea estali du –baita zentzu sexuarean ere–. Demokratismo moralak popatik eman dio dialektikari. Baina biak ala biak dira ideologia. Eta zer da demokrazia? Bada, gehiengoaren diktaduraren beste izena. Horregatik, ez kezkatu, hau ere modaz pasatuko da. Eta beste mozorro bat asmatuko dugu gure interesak disimulatzeko eta guztien arteko borroka odoltsuari jarraipena emateko.

Itzul nadin orain ongiaren eta gaizkiaren auzira. Batek esango dit, ez al da posible Hitlerren kasua aintzat hartuz gaizkiaren egiatasuna frogatzea? Eta gaizkia frogatua geratuko balitz, ongia ere, bide batez. Nik uste denok garelako Hitler potentzialak. Inoiz inor hiltzeko gogorik izan ez duenak harria bota diezadala. Zerk desberdintzen gaituen Hitlerrengandik edota hilketa burutzen duen edozeinengandik? Egoerak. Bera aurkitu zen egoeran ez zen arriskuan sentitzen egin zuena egiteko, estrategikoki pertinentea iruditu zitzaion egin zuena, eta kito. Eta beste hainbeste pentsatu bide zuten bere alde “demokratikoki” bozkatu zuten milioika alemaniarrek; gehiengo osatzen zuten alemaniarrek.

Entzun ditzaket hemendik harria eskuan prest daukaten santu demokrata-moralen indignazio oihiak. Izugarria da esan dudana. Bai. Hala da. Gizateria delako izugarria. Gure arteko bakoitza delako izugarria. Nola esplikatu bestela orain dela hirurogei urte genozidioa jasan zuen herri judutarrak orain palestinar herriari jasana-razten diona? Nola azaldu bestela Juanjok agerian jartzen zituen gure kontraesanak, hots, guri egiten dizkigutenek sortzen diguten indignazioa eta guk egiten ditugunek sortzen ez digutena?

Azken galdera bat orain Jose Inazioarentzat. Telekinisiaz –hots pentsamenduaren indar hutsez, eta inor ohartu gabe– jendea hiltzeko ahalmena bagenu guztiok, zenbat denbora iraungo luke gizateriak? ■

Denok gara Hitler potentzialak. Inoiz inor hiltzeko gogorik izan ez duenak harria bota diezadala.

Zerk desberdintzen gaituen Hitlerrengandik edota hilketa burutzen duen edozeinengandik